



Arartekoaren 2015R-2825-13 Ebazpena, 2015eko otsailaren 25koa. Horren bidez, Ordiziako Udalari gazte aisialdi lokal batek sortutako eragozpenak ekiditeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko gomendatu zitzaion.

Aurrekariak

1. Ordiziako bizilagun batek azaldu digunez, bizi den eraikinaren behealdean dagoen merkataritza lokal bat oker erabiltzen dute hainbat gazte taldek, eta hori dela eta zarata eragozpen larriak sortzen dituzte, bertan egiten dituzten jarduerak egiteko lokala ez baitago egokitu. Eta arazo honen aurrean, udal esku-hartze eza aipatu digu.

Zehazki, lokaletik datozen zarata eragozpenak jasanezinak direla adierazi du, kolpeak, ate zartakoak, musika ekipoek sortutako eragozpenak, jende gehiegi egoteak, eta jarduera hauek gaueko ordu txikiak arte luzatzea. Adierazi duenez, lokaletik sortutako kalte larrien ondorioz bere osasunak okerrera egin du.

2. Azaldutakoaren arabera, **2012ko apirilean aipatutako gazte aisialdiko lonja martxan jarri zenetik**, hainbat erreklamazio aurkeztu du Ordiziako Udalean, baina ez du jasaten ari den kalte larrientzako konponbiderik lortu.

Are gehiago, adierazi duenez, aurkeztutako lehendabiziko erreklamazioen harira, udalak jakinarazi zion toki erakundeak esku hartu ahal izateko lonja mota hauen funtzionamendua arautzen duen ordenantza onartu beharra dagoela.

Hala ere, interesduna ez dago batere ados jasaten ari den arazo larriaren aurrean udalaren esku-hartze ezarekin. Izan ere, erreklamazioak aurkeztu zituenetik denbora asko igaro da eta toki erakundeak ez du aipatutako ordenantza onartu, ez du lokaletik ateratzen diren zarata eragozpen larriak zuzentzeko inolako neurririk hartu eta ez du erabilera ordutegia ere mugatu.

3. Kexagilearen gogoetak alderatzeko helburuz, Ordiziako Udalari aipatutako lonjaren erabilerak sortutako eragozpenen aurrean toki erakundeak jarraitutako jardunak ezagutzeko informazioa eskatu genion. Era berean, udalak gazte lonja hauen erabilera arautzeko udal ordenantza onartzea aurreikusita zuen jakinarazteko eskatu genion.

Edozein modutan, bidalitako informazio eskaeran Ararteko erakundeak adierazi zuen lokal mota hauen erabileraren arautzeari kalterik egin gabe, arauditik datozen ingurugiro kontrol eta diziplina gaitasunak gauzatu behar dituela.

4. Gure eskaerari erantzunez, pasa den urteko maiatzaren 26an, honakoa zioen udal txosten bat jaso genuen:





"2013ko martxoaren 7ko Udal Osoko Bilkuran hasierako onarpena eman zitzaion "Gazteentzako Lokalen Udal Ordenantza"ri eta 2013ko martxoaren 18ko 53 zenbakia duen G.A.O.ean eta Udaleko iragarki taulan argitaratu zen, eta jendaurrekon epean 2 alegazio aurkeztu ziren. Aipaturiko alegazioak ikusita eta hasieran onartutako testuarekiko zenbait gogoeta egin ondoren, ordenantzako testuan funtsezko aldaketak sartu direnez, 2014ko apirilaren 3an egindako Osoko Bilkuran hasierako onarpena eman zitzaion berriro ordenantzari (ordenantzaren kopia atxikitzen da), eta 2014ko apirilaren 16ko 73 zenbakia duen G.A.O.ean eta Udaleko iragarki taulan argitaratu zen, beraz une honetan jendaurreko epealdian dago.

Azpimarratu behar da ordenantza berri hau egiteko, kontuan izan direla egindako ekarpen guztiak, eta besteak beste, gazteekin bilerak egin direla, baita guraso eta bizilagunekin ere bildu direla, eta horren ondorioa dela Ordenantza.

Bukatzeko esan, Udalak ulertzen duela Ordenantzaren bitartez soluzionatuko direla gai honi buruz dauden arazoak, besteak beste, erreklamazio horretan agertzen dena."

Udaletik jasotako informazioa kontuan hartuz eta interesdunak bere funtzionamendu irregularra dela eta sortutako kalte larriak azpimarratu dituzenez, erakunde honek Ordiziako Udalarari berriro ere gogorarazi behar dio aipatutako ordenantza behin-betiko onartzeko sortutako zailtasunez edo atzerapenez gain, udalak, aipatutako lonjatik sortutako behin-behineko irregulartasunen aurrean, esku hartu behar duela legeak aurreikusten dituen eskakizunak betearazteko.

Gainera, interesa izan dezakeela uste dugunez, berriro ere bidali genion Ordiziako Udalarari **Arartekoak egindako gazte lokalen gaineko hausnarketa oinarrien dokumentuaren kopia**. Dokumentuaren helburua hainbat proposamen eta gomendio ezartzea da, herri-administrazioek homogeneoki jarduteko ikuspuntu bikoitz baten barruan: **ingurumenean inpakturen bat eragin dezaketen jarduerak arautzen dituen arau-esparrua betetzea**; eta, gazteen lokal egokien, ziurren eta beren gizarte-ingurunean hazten ari den fenomeno horretan parte hartzen duten gainerako eragileekin integratutakoen alde egitea.

5. Dena den, pasa den urteko urriaren 10ean, interesduna berriro ere jarri zen erakundearekin harremanetan, lokalaren funtzionamendu irregularrak sortutako eragozpenak errepikatuz. Adierazi du azkeneko hilabeteetan udalean erreklamazio berriak aurkezten jarraitu duen arren, indarrean dagoen udal ordenantza betetzea exijituz, toki erakundeak erantzun eraginkor bat eman gabe jarraitzen duela.

Erakunde honek sustatutako kudeaketa berriak kontuan hartuz, 2014ko azaroaren 17an udal zerbitzuen ordezkariak sinatutako txosten berri bat jaso genuen, esanez **poliziak dagokion ikuskaritza egingo duela lokalean**.





Horrez gain, aipatutako txostenean honakoa adierazten da: *“Ordenantzan osoko bilkuran onartua izan zen 2014/04/03an, baina Gipuzkoako aldizkari ofizialean 2014/06/06an agertu zen, beraz, egokitzeko epea 2014/12/06an bukatzen da.”*

Kasu honetan, Ararteko erakundeak Ordiziako Udalari azpimarratu zion aipatutako ordenantzaren 5. artikuluan adierazten den bezala, edozein gazte lonjaren erabilera arautzen ari den bitartean, *espediente zigortzaileak abiarazteari kalterik egin gabe, beste ez-ohiko neurri batzuk hartzeko eskatu ahal izango zaiola*, segurtasuna bermatzeko eta inguruan jardueraren eragina eta pertsonen sortutako eragozpenak murrizteko zuzendutako neurriak.

6. Aldiz, pasa den 2015eko urtarrilaren 16an, kexagileak berriro ere salatu zuen erakunde honen aurrean gaur egun oraindik pairatzen ari dituen eragozpen larriak, lokalaren erabilera okerrak sortuak, batez ere *zaratak, jende gehiegi egoteak eta gauez erabiltzeagatik* sortuak. Adierazi du lokala baldintza berdinetan funtzionatzen jarraitzen duela, eta ez dela inolako neurririk hartu. Bere ustez oraindik ez dutela lokalaren ikuskaritza egin adierazi du, eta ez dirudiela erregularizatzeari hasiera eman diotenik.

Amaitzeko, adierazi du egoerak okerrera egin duela azken hilabeteetan, lokalaren erabiltzaileekin hainbat ahozko liskar izan ondoren.

Kexa honetan eman diren gertaerak direla eta, egokia iruditu zaigu ondorengo gogoetak adieraztea:

Gogoetak

1. Kexaren oinarritzko helburuak udal esku-hartze ezari egiten dio erreferentzia, lokala gure ordenamendu juridikoak jasotzen dituen legezko eskakizunei egokitu dadin exijitzeko.

Lehendabizi, azpimarratu beharra dago Ararteko erakundeak, gure izatezko aurrekarietan adierazi izan dugun bezala, egoki ikusten duela jarduera hauek bete behar dituzten baldintzak eta neurri zigortzaileak garatzeko udalak gaituko dituen arau esparru baten beharra.

Udal ordenantza baten bidez aisialdi lokalen jarduera arautzeak, udal bakoitzean fenomeno honen errealitatea kontuan hartuko duen berezko esparru bat sortzeko balio dezake. Araudi esparru horren barruan, udal administrazioek gazte lokalen erabileraren gainean modu zehatzean arautu ditzakete dagozkion xedapenak eta eskakizun teknikoak eta segurtasunekoak erantsi, erabilera horretarako baliagarritzat hartu aurretik udalerrri barruan dauden lokalek behar dituztenak.





Era berean, udalak berak adierazi duen bezala, udal ordenantzak onartzeko administrazio prozedurak kaltetutako pertsona guztien parte-hartzea erraztu dezake eta bizikidetzaren inguruko gatazka puntualak konpontzeko mekanismo alternatiboak ezartzeko erreminta baliagarria **izan daiteke**.

Hala ere, izatezko aurrekarietan aipatu dugun bezala, ordenantza behin-betiko onartu bitartean sortutako zailtasun edo atzerapenek ezin dute bere arauditik sortutako ingurugiro kontrol eta diziplina gaitasunak ekidin ezta hauen gauzatzea ordezkatu ere.

2. Azaldu beharra dugu udal esku-hartzeak ez duela behar aurretik jarduera mota hau espresuki arautzen duen udal ordenantzarik. Ingurugiroaren babes orokorraren otsailaren 27ko 3/1998 Legeak honako betebeharra ezartzen du: funtzionatzen hasi aurretik, ingurugiroan kalteak sor ditzaketen jarduerak edo pertsonen eragozpenak sor dezaketenak, sailkatutako jardueren kontrol erregimenari lotuta egon behar dira.

Horregatik, afekzio txikiagoa duten aisialdi jarduerak **jarduera aurretik jakinaraztea** behar dute –gaur egun indarrean dagoen Ordiziako udalerriko gazte lokalen udal ordenantza arautzailearen 3/1998 Legearen 62 bis artikulua eta 5. artikulua arabera.

Ingurugiro kontrola aurretikoa da, komunikazio horrek jarduerari buruzko eta haren inpaktua minimizatzeko hartutako neurriei buruzko txosten bat eskatzen duelako, baita neurriok betetzen direla ziurtatzen duen agiri bat ere. I. eranskinak lokal mota hauek euren erabilerarako egokitze jo aurretik bete behar dituzten baldintza teknikoak eta segurtasunekoak ezartzen ditu.

Halaber, **ingurumen-kontrola** ez da baimen horretara mugatzen; aitzitik, era egokian garatzeko, jarraipena egin behar zaio eta emaitza jakinak eskatu behar zaizkio alde aurretik finkatutako ingurumenaren kalitaterako helburuei dagokienez.

Horrela, udal ordenantzak berak bere 5. artikuluan aurretiko jakinarazpenak jarduera **aurkezpena egin den egunetik** gauzatzea baimentzen du orokorrean, **udalak** udalerrri barruan dauden lokalek izan behar dituzten baldintza tekniko eta segurtasun baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko dituen egiaztatze, kontrol eta ikuskaritza gaitasunak gauzatzea **kaltetu gabe**.

Egiaztatu ondoren, udalak kaltetutako bizilagunei zein jardueraren arduradunei lokalaren betetze maila jakinarazi behar die, bai segurtasun eta egokitze eskakizunena baita ingurugiroaren legezkotasuna betetzearena ere.

Gainera, agindu horren 13. artikulua ezartzen duen arabera, toki erakundeak esku hartu dezake, bai ofizioz baita kaltetutako bizilagunek hala eskatuta ere, exijitutako neurri zuzentzaileak aurrerago betetzen ari diren





kontrolatzeko, batez ere ordutegiari, soinu-igorpenei eta espazio publikoen okupazio okerrari dagokionean.

Lokala agindua indarrean jarri aurretik martxan dagoen kasuetan eta beharrezko baimena ez dutenean, aipatutako ordenantzaren xedapen iragankorrak gehieneko 6 hilabeteko epean arautu beharko duela ezartzen du.

Gainera, erregularizazioari hasiera eman arren, kasu honetan hori gertatu ez bada ere, udalak, bere funtzionamenduan edozein arazo edota exijitutako baldintzak betetzen ez direla sumatzen badu, beharrezkoak diren kautelazko neurriak hartu ahal izango ditu, baita jarduerak debekatu eta eten ere, bere 14. artikulua ezartzen duen bezala, arazo gehien sortzen dituzten kasuetan segurtasun, osasungarritasun baldintzak betetzen ez direlako edo alboko pertsonengan eragozpenak sortzen ari direlako.

3. Bestalde, aurretik azaldutakoa ikusita, ez du ematen Ordiziako Udalak ingurugiro kontrolerako araudiari egokitzeko eskatu duenik, ezta segurtasuna bermatzeko, inguruan jardueraren eragina gutxitzeko eta pertsonen sortutako eragozpenak murrizteko arauditik eratorritako ingurugiroaren kontrol eta diziplina gaitasunak gauzatu dituenik ere.
4. Jarduera hauen gauzatzea prebentzio eta zuzentze neurri zorrotzagoei lotzea **toki administrazioentzako erabilezina den lege agindua da**, interes orokorra babestea helburu duena, eta zehazki, etxebizitza batez zaratak sortutako legez kanpoko mutur sartzerik gabe eta eraikinen segurtasunaz gozatzeko eskubidea babesteko helburua.

Udalek, baimendu duten jarduerak, eta are gehiago baimendu ez dituzten legez kanpoko jarduerak, funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezkoak diren murrizketei eta neurriei egokitzen direla bermatu behar dute. Horrek biztanleek atsedean hartu eta kalitatezko inguruneaz gozatu ahal izateko duten eskubidea errespetatzen ez duten jokabideak edo jarrerak ezabatzeko beharrezkoa bada zigor neurriak hartzea, indarreko ordenamendu juridikoak bide horiek ere eskaintzen ditu biztanleen interes orokorra babesteko.

5. Gainera, aisialdi lokal hauen fenomenoak izugarri handitzen ari denez, behin bere funtzionamendurako beharrezkoak diren eskakizun tekniko eta legezko eskakizunak betetzen dituela, botere publikoentzat bizikidetzaren espazio hauek gazteriarentzako politikak adosteko eta sustatzeko aukera ezin hobea da.
6. Horregatik guztiatik, udal administrazio horri eskatu behar diogu berriz ere baliabideak eta prozedurak arbitratu behar dituela berehala, lokal hauetatik gertu bizi diren pertsonen intimitaterako eta segurtasunerako eskubideak modu eraginkorrean gauzatu direla lortzeko.

Horregatik guztiatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:





GOMENDIOA

Ordiziako Udalak lokala Ingurugiroaren Babes Orokorraren otsailaren 27ko 3/1998 Legeak jasotzen duen ingurugiro kontrolerako araudiari egokitzeko eskatzea eta **Ordiziako gazte** lokalak arautzeko udal ordenantzak ezartzen dituen segurtasun, osasungarritasun eta biziegokitasun baldintzak betearaztea. Guzti hori ingurugiroan eta inguruan bizi diren pertsonen osasunean sortu daitezkeen kalteak ekiditeko eta erabiltzaileen segurtasuna handitzeko helburuz.

Era berean, lokalen erabiltzaileek administrazio baimenetik (edukiera, ordutegia, zarataren kontrola) eratorritako betebeharrak bete ditzaten nahitaezkoak diren mekanismoak sustatu beharko ditu, eta sortu daitezkeen behin-behineko desadostasunak edo bizikidetza gatazkak konpontzen saiatu behar da.

